kualifikazioen eta lanbide heziketaren euskal institutua
Instituto vasco de cualificaciones y formación profesional

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE
ETA KULTURA
ZERBITZUAK

## HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 4. modulua: **Adierazpena eta Komunicazioa**

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA**

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

# HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 4 modulua: **Adierazpena eta komunikazioa**


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**
Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http//www.euskadi.net/ejgvbiblioteka

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2009ko ekaina |
| Ale-kopurua: | 50 ale |
| | |
|---|---|
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| | |
|---|---|
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz |
| | |
|---|---|
| Egilea: | Agurtzane Mayayo Ontalvilla |
| Koordinazioa: | Víctor Marijuán Marijuán<br>KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA<br>INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL<br>www.kei-ivac.com |
| | |
|---|---|
| Diseinua eta diagramazioa: | TRESDETRES |
| Inprimatzea: | mccgraphics |
| L.G.: | VI 396/2009 |



Iraupena: 218 ordu
UDen kopurua: 6

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzera eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

# AURKIBIDEA


UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA 04. or.

0 — 0. unitate didaktikoa:
Moduluaren aurkezpena 05. or.

1 — 1. unitate didaktikoa:
Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduerak planifikatzea 08. or.

2 — 2. unitate didaktikoa:
Ahozko adierazpena garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea 17. or.

3 — 3. unitate didaktikoa:
Adierazpen grafikoa garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea 25. or.

4 — 4. unitate didaktikoa:
Adierazpen logiko-matematikoa garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea 32. or.

5 — 5. unitate didaktikoa:
Adierazpen erritmiko-musikala garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea 39. or.

6 — 6. unitate didaktikoa:
Gorputz-adierazpena garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea 48. or.

## Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

| EDUKI MULTZOAK | | | | | UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK | IRAUPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| M 1 | M 2 | M 3 | M 4 | M 5 | | |
| | | | | | UD 0: Moduluaren aurkezpena | 1 h. |
| X | | | | X | UD 1: Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduerak planifikatzea | 38 h. |
| | X | X | | X | UD 2: Ahozko adierazpena garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea | 38 h. |
| | X | | X | X | UD 3: Adierazpen grafikoa garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea | 35 h. |
| | X | | X | X | UD 4: Adierazpen logiko-matematikoa garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea | 38 h. |
| | X | | X | X | UD 5: Adierazpen erritmiko-musikala garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea | 36 h. |
| | X | | X | X | UD 6: Gorputz-adierazpena garatzeko hezkuntza esku-hartzeak planifikatzea | 32 h. |
| | | | | | GUZTIRA | 218 ordu |

*1. multzoa: Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduerak planifikatzea.*
*2. multzoa: Haurrei zuzendutako adierazpen- eta komunikazio-baliabideak hautatzea.*
*3. multzoa: Ahozko adierazpena garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduerak abiaraztea.*
*4. multzoa: Adierazpen plastikoa, grafikoa, erritmiko-musikala, logiko-matematikoa eta gorputzekoa garatzen laguntzen duten jarduerak abiaraztea.*
*5. multzoa: Adierazpenaren eta komunikazioaren arloko esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzea.*

<table>
<tr><td colspan="2">0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA</td><td colspan="5">Iraupena: 1 ordu</td></tr>
<tr><td colspan="7">Ikaskuntzaren helburuak:<br>1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.<br>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.<br>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.<br>4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.<br>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.</td></tr>
<tr><td colspan="2" rowspan="2">EDUKIAK</td><td colspan="5">Multzoak</td></tr>
<tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td></tr>
<tr><td>PROZEDURAZKOAK</td><td>• Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.<br>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>KONTZEPTUZKOAK</td><td>• Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.<br>• Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.<br>• Moduluaren helburuak.<br>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>JARRERAZKOAK</td><td>• Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.<br>• Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ZER** egingo dudan edo duten Jarduera mota | **Helburu inplikat.** | **D.** | **NORK** | | **NOLA** egingo den | **ZERTARAKO** egingo den | **ZEREKIN** egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| **J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.** | 1 | 10 m. | X | X | Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da. | Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango. | Ez da bitarteko berezirik behar. |
| **J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.** | 2-4 | 10 m. | X | X | Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du. | Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste. | Arbela.<br>Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa.<br>Kronogramak<br>Informazioa duten fotokopiak. |
| **J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.** | 2-3 | 10 m. | X | X | Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuez lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu.<br>Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da. | Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna. | Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar. |
| **J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.** | 5 | 30 m. | X | X | Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez. | Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari. | Galdera sortak. |

| OHARRAK |
| --- |
| • Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.<br>• J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.<br>• Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira. |

| 1. unitate didaktikoa: ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA GARATZEN LAGUNTZEN DUTEN HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEEN PROGRAMAZIOA | Iraupena: 38 ordu |
|---|---|

*IE 1: Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduerak planifikatzen ditu, eta horiek hartzaile izango diren banakoen eta taldearen ezaugarriekin lotzen ditu.*
*IE 5: Adierazpenaren eta komunikazioaren arloko esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen ditu, eta garrantzizko aldagaiak eta ebaluazio-tresnak argudiatzen ditu.*

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Hartzaileen adinaren arabera, adierazpen moten ezaugarriak identifikatzea.
2. 0 eta 6 urte bitarteko haurren lengoaiaren eta pentsamenduaren arteko loturari buruzko teoriak aztertzea.
3. Haurren eboluzio-ezaugarrien arabera, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten helburuak finkatzea.
4. Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokituta, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten jarduerak proposatzea.
5. Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokituta, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten espazioak ezartzea.
6. Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokitzeko, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten jardueren denbora-banaketa ezartzea.
7. Haurren adierazpena eta komunikazioa bultzatzeko jardueren diseinuan sormenezko proposamenak egitea.
8. Prozedura zuzenari jarraituz ebaluazio-tresnak aplikatzea.
9. Ebaluazioaren ondoriozko datuak ezarritako euskarrian erregistratzea.
10. Prozesuari buruzko informazio teknikoa interpretatzea.
11. Beste profesional batzuekin zein egoeratan lankidetzan aritu beharra dagoen identifikatzea.
12. Familiei eta beste profesional batzuei zuzendutako dokumentazioa prestatzea.
13. Esku-hartze desegokien litezkeen arrazoiak identifikatzea.
14. Haurren garapena behatzeko funtsezko elementu gisa baloratzea adierazpena.
15. Adierazpena eta komunikazioa lantzeko materiala lantzea eta/edo jasotzea.
16. Ahozko adierazpenaren asaldura nagusiak ezagutzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| PROZEDURAZKOAK | • Hartzaileen adinaren arabera, adierazpen motak ezaugarritzea. | X | | | | |
| | • 0 eta 6 urte bitarteko haurren lengoaiaren eta pentsamenduaren arteko loturari buruzko teoriak aztertzea. | X | | | | |
| | • Haurren eboluzio-ezaugarrien arabera, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten helburuak eta jarduerak finkatzea. | X | | | | |
| | • Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokituta, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten espazioak ezartzea. | X | | | | |
| | • Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokitzeko, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten jardueren denbora- | X | | | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | banaketa. | X | | | | |
| | • Haurren adierazpena eta komunikazioa bultzatzeko jardueren diseinuan sormenezko proposamenak egitea. | X | | | | |
| | • Ahozko adierazpenaren asaldura nagusiak aztertzea. | | | | | |
| | • Hautabidezko komunikazio-sistemak erabiltzea. | | | | | X |
| | • Haurren adierazpenaren eta komunikazioaren jarraipenerako behaketa-tresnak prestatzea. | | | | | |
| | • Prozedura zuzenari jarraituz ebaluazio-tresnak aplikatzea. | | | | | X |
| | • Ebaluazio-erregistroak prestatu eta interpretatzea. | | | | | X |
| | • Beste profesional batzuekin zein egoeratan lankidetzan aritu beharra dagoen identifikatzea. | | | | | X |
| | • Haurrekin adierazpenaren eta komunikazioaren arloan esku hartzeko programak ebaluatzea. | | | | | X |
| | • Familiei bidaltzeko dokumentuak prestatzea. | | | | | X |
| | • Esku-hartze egokien litezkeen arrazoiak identifikatzea. | | | | | X |
| | • Esku-hartze desegokien litezkeen arrazoiak aztertzea. | | | | | X |
| KONTZEPTUZKOAK | • Adierazpena. | X | | | | |
| | • Komunikazioa. | X | | | | |
| | • Komunikazio-egoerak aztertzeko jarraibideak. | X | | | | |
| | • Elebitasuna eta diglosia. | X | | | | |
| | • Adierazpenaren eta komunikazioaren garapena haurraren baitan. | X | | | | |
| | • Adierazpenaren asaldurak. | X | | | | |
| | • Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten jarduerak programatzea. | X | | | | |
| | • Hautabidezko komunikazio-sistemak. | X | | | | |
| | • Adierazpen eta komunikazioaren esparruan esku hartzeko programak ebaluatzea. | | | | | X |
| JARRERAZKOAK | • Haurren garapena behatzeko funtsezko elementu gisa baloratzea adierazpena. | X | | | | |
| | • Komunikazioak haurraren garapenean duen garrantzia baloratzea. | X | | | | |
| | • Komunikazioan eragina duten asalduren ondorioz, berariazko komunikazio-sistemen beharra baloratzea. | X | | | | |
| | • Esku-hartzea hobetzeko baliabide gisa ebaluazioak duen garrantzia baloratzea. | | | | | X |
| | • Esku-hartzea hobetzeko baliabide gisa ebaluazioak duen garrantzia baloratzea. | | | | | X |
| | • Beste profesional batzuekin koordinatzearen beharra baloratzea. | | | | | X |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ZER** egingo dudan edo duten Jarduera mota | **Helburu inplikat.** | **D.** | **NORK** | | **NOLA** egingo den | **ZERTARAKO** egingo den | **ZEREKIN** egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| **J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.**<br>**E0 Hasierako ebaluazioa.** | | 1 h. | X | | Irakasleak galderak egingo dizkie ikasleei ahoz; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko.<br>Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena ezagutzea eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Aldez aurretik egindako inkesta.<br>Arbela.<br>Klarionak. |
| **J1 Adierazpenari eta komunikazioari buruzko azalpena.** | 1, 2 | 1,5 h. | X | | Irakasleak talde osoari klase magistrala emango dio, adierazpenari eta komunikazioari buruz. | Ikasleei adierazpen eta komunikazioari buruzko informazioa emango zaie. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| **J2 Taldeko eztabaida: adierazpenak eta komunikazioak Haur Hezkuntzan duten garrantzia.** | 1, 2 | 1 h. | X | X | Adierazpenak eta komunikazioak Haur Hezkuntzan duen garrantziari buruz eztabaidatuko dute ikasleek taldean, eta hezitzailea izango da moderatzailea. | Komunikazioa eta entzute aktiboa garatzen da, eta arrazoitzen eta ikuspegi desberdinak onartzen ikasten dute ikasleek.<br>Dagokion lanbide-rola ondo betetzen komunikazioak duen garrantzia baloratzen ikasten dute. | Ikasgela bera. |
| **J3-E1 Ikasleen praktika autonomoa: Hizkuntza garatzeko nahastutako faktoreak aztertzea.** | 1, 2 | 1 h. | | X | Ikasle bakoitzak eguneroko komunikazio-egoerak aztertu eta hizkuntzaren garapenean esku hartzen duten faktoreak zehaztuko ditu. | Ikasleek eguneroko komunikazio-egoerak aztertu eta hizkuntzaren garapenean esku hartzen duten faktoreak zehazten ikasten dute.<br>Adierazpena eta komunikazioa garatzeko eguneroko jarduerek duten garrantziaz kontzientziatuko dira ikasleak. | Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **J4-E2 Ikasleen praktika autonomoa: Aurretiazko ideiak idatziz eta/edo ahoz jasotzea.** | 1, 2 | 0,5 h. | | X | Hizkuntza bat bereganatzeko nahastutako faktoreei buruzko aurretiazko ideiak jasoko dituzte ikasleek, idatziz eta/edo ahoz. | Aurretiazko kontzeptuak ebaluatzeko balio du.<br>Ikasleek dituzten aurretiazko ideiekin lotzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J5-E3 Talde-lana: hizkuntzaren eboluzioari buruzko taula bat egitea.** | 1, 2 | 1 h. | | X | Taldea multzotan banatu eta 0 eta 6 urte bitarteko haurren hizkuntzak eta komunikazio-sistemek izandako eboluzioari buruzko taula bat osatzeko eskatuko zaie. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak antolatzeko bitartekoak eskuratuko dituzte. | Testu-liburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| **J6-E4 Talde-lana: Bideo-grabaketak aztertzea.** | 1 | 1 h. | | X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta hainbat bideo-grabaketa ikusiko dituzte. Hizkuntza desberdinak erabiltzen dituzten komunikazio-egoerak erakutsiko dira: ahozkoa eta keinuen bidezkoa, gorputz-adierazpena; eta guztiak aztertuko dira. | Hartzaileen adinaren arabera, adierazpen moten ezaugarriak identifikatzen dira. | “Mundo en pañales” bildumako bideoak edo antzeko edukiak. |
| **J7-E5 Ikasleen praktika autonomoa: Hizkuntza-akatsak identifikatzea.** | 1 | 1,5 h. | | X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta hainbat haurren hizkuntza-produkzioak jarriko zaizkie entzuteko; haur-gelan izaten diren hizkuntza-akatsak azpimarratzeko eta bakoitzari dagokion maila eta arrazoiak zehazteko eskatuko zaie. | Haurren hizkuntza aztertzen da eta, era berean, hizkuntza-akatsak bereizteko balio du. | Grabaketak.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J8-E6 Ikerketa-lana: hizkuntza bereganatzeko teoriak.** | 1, 2 | 2 h. | | X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta hizkuntza bereganatzeko teoriei buruzko lan bat egiteko eskatuko zaie. Desberdintasunak eta elkarren arteko osagarritasuna aztertuko dute. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dion idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute. | Testu-liburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **J9 Hizkuntza bereganatzeari buruzko eztabaida.** | 1, 2 | 1 h. | X | X | Hizkuntza ikastearen garrantziari eta hizkuntza bereganatzeko berezko baldintzen garrantziari buruz hitz egingo dute ikasleek. | Komunikazioa eta entzute aktiboa garatzen da, eta arrazoitzen eta ikuspegi desberdinak onartzen ikasten dute ikasleek.<br>Dagokion lanbide-rola ondo betetzen komunikazioak duen garrantzia baloratzen ikasten dute. | Ikasgela bera. |
| **J10 Taldeko praktika: Zinta bat grabatzea.**<br><br>**J10.1-E7 Hizkuntzaren ezaugarriak aztertzea.** | 1, 2 | 1 h.<br><br>1 h. | | X<br><br>X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta haur baten (6 eta 36 hilabete artekoa) eta pertsona heldu baten arteko elkarreraginezko egoera bat grabatzeko eskatuko zaie (zinta edo CDa).<br><br>Ondoren, hizkuntzaren ezaugarriak aztertuko dituzte, hiru mailak barne hartuz: fonologikoa, morfosintaktikoa eta semantikoa. Haurra hizkuntza bereganatu aurreko etapan badago, helduarekin komunikatzeko baliatzen dituen begiradak, keinuak eta gorputz-adierazpena azaldu beharko ditu ikasleak. | Hartzaileen adinaren arabera, adierazpen moten ezaugarriak identifikatzen dira. Hizkuntzaren ezaugarriak ezagutzeko balio du, hiru mailak barne hartuz. | Bideo-kamera.<br>CD erreproduzitzailea.<br>Telebista.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J11-E8 Ikasleen praktika autonomoa: Hizkuntza bereganatzeko orduan pertsona helduaren esku-hartzea aztertzea.** | 1, 2 | 0,5 h. | | | Ikasle bakoitzak, hizkuntza bereganatzeko orduan haurrarekin elkarreragiten duten helduen eginkizuna aztertuko du. | Hizkuntza bereganatzeko hezitzaileak duen eginkizuna baloratuko da. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J12 Haurren adierazpenaren behaketari buruzko azalpena.** | 1, 2 | 1 h. | X | | Irakasleak talde osoari klase magistrala emango dio, haurren adierazpenaren behaketari buruz. | Ikasleei haurren adierazpenaren behaketarekin lotutako informazioa emango zaie. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J13 Hitzak artikulatzeko eta adierazteko zailtasunei buruzko azalpena.** | 1, 2 | 1,5 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du, haurrek hitzak artikulatzeko edo adierazteko izaten dituzten zailtasunei buruz. | Hitzak artikulatzeko eta adierazteko zailtasunei buruzko informazioa emango zaie ikasleei. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **J14-E9 Ikasleen praktika autonomoa: Adibide bakoitzaren irudiak.** | | 0,5 h. | | X | Ondoren, ikasleek adibideak jarriko dituzte kasu bakoitzarekin. | | |
| **J15-E10 Talde-lana: hitzak lantzeko jarduerak programatzea.** | 3, 4 | 1,5 h. | | X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta ahozko eta idatzizko bost jardueren programazioa egiteko eskatuko zaie (kontuan hartuko da haurrek ez dakitela irakurtzen). Taldean eta banaka lan egingo dute eta silaba bakarreko, bi silabako, hiru silabako eta lau silabako hitzak landuko dira. | Hitzak lantzeko jarduerak, baliabideak eta estrategiak proposatzen ikasiko dute ikasleek.<br>Haurren adierazpena eta komunikazioa bultzatzeko jardueren diseinuan sormenezko proposamenak egiten ikasten da.<br>Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokitzeko, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten jardueren denbora-banaketa ezartzeko balio du.<br>Haurren eboluzio-ezaugarrien arabera, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten helburuak finkatzen dira | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J16-E11 Talde-lana: hizkuntzaren hizkuntza-alderdiei eta hizkuntzazkoak ez direnei buruzko taula bat lantzea.** | 1, 2 | 1 h. | | X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta taula bat osatzeko eskatuko zaie. Taula horretan hizkuntza-alderdiak eta hizkuntzazkoak ez diren alderdiak barne hartuko dira, bai eta hizkuntzaren jolasekin hasteko adin egokia ere. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak antolatzeko bitartekoak eskuratuko dituzte. | Testu-liburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| **J17-E12 Taldeko praktika: Rol playing: Familiarentzako hitzaldi baten simulazioa.** | 12 | 0,5 h. | | X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta familiarekin egingo den bilera baten simulazioa prestatuko dute. Haurtzaindegiko orientazioak emango zaizkio familiari bilera horretan, gai honen inguruan: haurraren hizkuntza garatzen laguntzen duten baldintza egokiak. Jarduera hau ez da 45 minutu baino gehiago luzatuko; gauzak garbi, eskematikoki eta osorik aurkeztuko dira | Familiari haurraren hizkuntza garatzeko lagungarriak diren baldintza egokiei buruz emango zaion informazioa egituratzen ikasten dute ikasleek. | Ikasgela bera. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | (kontuan hartu behar dira helburuak, edukiak, familiaren esku-hartzeak, oztopoak eta jarrera laguntzaileak). | | |
| **J18 Adierazpenaren asaldurei eta hautabidezko komunikazio-sistemei buruzko azalpena.** | 1, 3, 4 | 2 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du, adierazpenaren asaldurei eta hautabidezko komunikazio-sistemei buruz. | Adierazpenaren asaldurei eta hautabidezko komunikazio-sistemei buruzko informazioa emango zaie ikasleei. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| **J19-E13 Ikasleen praktika autonomoa: Integrazioa errazten duten baldintzak aztertzea.** | 16 | 1 h. | | X | Haurrei eskatuko zaie ezintasunak dituen haur bat eskolan integratzeko baldintza egokiak aztertzeko, bai eta eskolak horrelako ezintasunak diagnostikatzen betetzen duen lanaren garrantzia azpimarratzeko ere. | Ikasleek gogoeta egingo dute ezintasunak dituzten pertsonek gainditu behar dituzten oztopo arkitektonikoei, sozialei, ekonomikoei, eta abar buruz, eta integrazioa errazteko baldintzak aztertuko dituzte. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J20-E14 Ikasleen praktika autonomoa: Ezintasunen eta horiek dakartzaten arazoen arteko erlazioak identifikatzea.** | 16 | 1,5 h. | | X | Ikasleek unitatean ikusitako ezintasunak aztertuko dituzte. Bakoitzak dituen oztopo motak edo sortzen diren arazoak zehaztuko dira (arazo soziala, psikologikoa, intelektuala, fisikoa, eta abar). Ikasleek gogoeta egingo dute oztopo horiek desagerrarazteko aukeraren inguruan, eta hezitzaileari dagokion eginkizunari buruz hausnartuko dute. | Adierazpen eta komunikazioarekin lotutako ezintasunen inguruan gogoeta egiten da eta ezintasun horiek dakartzaten arazoez jabetzen dira ikasleak.<br>Integrazioa errazteko hezitzaileak duen eginkizuna baloratuko da. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J21-E15 Ikasleen praktika autonomoa: Ezintasunekin erlazionatutako kontzeptuak definitzea.** | 16 | 1,5 h. | | X | Ikasleek adierazpen eta komunikazioarekin erlazionatutako ezintasunak deskribatuko dituzte, adibidez: dislalia, disfasia, disfemia, eta abar, eta ezintasun horiek patologikotzat noiz jotzen diren eta eskolan nola esku hartu adieraziko dute. | Komunikazioarekin eta adierazpenarekin erlazionatutako ezintasunen inguruan gogoeta egiteko eta hainbat kontzepturi buruz dituzten aurrekontzeptuak ezagutzeko balio du.<br>Ezintasun jakin batzuen aurrean esku hartzeko modu zuzena ezagutzeko balio du. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J21.1-E16 Esku hartzeko protokoloa deskribatzea** | | | | X | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **J22-E17 Suposizio praktikoak ebaztea: Gortasuna duen ikasle bat.** | 16 | 1 h. | | X | Irakasleak entzumen-ezintasunarekin erlazionatutako hainbat egoera edo arazo azalduko dizkie ikasleei. Ikasleek kasu bakoitza aztertu eta ezintasunak eragindako zailtasunak eta aukerak aztertuko dituzte; era berean, beharrezkoak diren baliabide bereziak aurreikusiko dituzte eta hezitzaileak betetzen duen eginkizuna baloratu. | Zentzumen-urritasunekin erlazionatutako hezkuntza-premia berezien aurrean esku hartzeko protokoloekin lotutako jarrerazko eta prozedurazko edukiak kontuan hartzen dira. | Irakasleak aldez aurretik prestatutako suposizio praktikoak. |
| **J23 Entzumen-urritasuna duen pertsona baten hitzaldia.** | 16 | 1,5 h. | | | Entzumen-urritasuna duen pertsona bat gonbidatuko da gelara, bere esperientzien berri emateko. | Ikasleak entzumen-urritasunekin lotutako alderdiei buruzko informazioa ezagutzea lortu nahi da.<br>Ikasleak sentsibilizatzeko. | Ikasgela bera. |
| **J24-E18 Ikerketa-lana:**<br><br>**J24.1 Hizkuntza-materialak jasotzea.**<br><br>**J24.2-E19 jardueraren azterketa.**<br><br>**J24.3 Balorazio kritikoa J24 jardueraren inguruan.** | 15 | 2 h. | | X<br><br>X<br><br>X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta hizkuntzak eta herri-ohiturek eskaintzen dituzten materialak biltzeko eskatuko zaie (atsotitzak, igarkizunak, ipuinak, aho-korapiloak, eta abar), haur-adinetarako egokiak.<br><br>Honako alderdi hauek aztertuko dira: material mota, hizkuntzarekin lotuta landu daitezkeen alderdiak, aplikatzeko adin egokia eta egokitzapenik egin behar ote den.<br><br>Ondoren, landutako materiala eskoletan erabiltzeko egokia ote den eta berau aplikatzeko metodologia baloratuko dituzte. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dion idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute. | Testu-liburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| **J25-E20 Praktika autonomoa: familientzako informazio-tresnak prestatzea.** | 10 | 1 h. | | X | Ikasleek hainbat informazio-tresna landuko dituzte, ohiturak hartzeko prozesuaren ebaluazioan lortutako informazioa familiei ezagutzera emateko. | Seme-alaben ohiturak hartzeko prozesua ebaluatzeko tresnak lantzen dira. | Testu-liburua.<br>Ordenagailuak.<br>Inprimagailua. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **J26 Talde-lana: ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren datuak jasotzea.**<br><br>**J26.1-E21 Talde-lana: ebaluazio-tresnak aplikatzea.**<br><br>**J26.2-E.22 Lan-taldeak: jasotako informazioa ondo interpretatzea.** | 9, 10, 11, 13, 14 | 1 h.<br><br>1 h.<br><br>1,5 h. | | X<br><br>X<br><br>X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta haur-talde bat behatu beharko dute. Ohiturak hartzeko prozesua ebaluatzeko beharrezkoak diren datuak jasotzeko eskatuko zaie. Horretarako, ebaluazio-tresna egokiak aplikatu beharko dituzte eta prozedura zuzena bete.<br><br>Ondoren, irakasleari txosten bat emango diote, eta jasotako informazioa eta lortutako ondorioak adieraziko dituzte bertan. Irakasleak txostena zuzendu eta baloratuko du. | Esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen da, oinarrizko beharrei erantzuteari eta autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeari dagokionez, eta erabilitako estrategien eta tresnen hautaketa justifikatzeko balio du.<br>Informazioa ondo interpretatzen ikasten da.<br>Autonomia pertsonaleko ohiturak hartzearekin lotutako litezkeen gatazkak eta asaldurak identifikatzen dira. | Ebaluazio-tresnak. |
| **J27-E23 Ikasleen praktika autonomoa: Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten hezkuntzako esku-hartzeen programazioari buruzko txosten bat lantzea.** | 1, 2 | 1 h. | | X | Ikasle bakoitzak unitate didaktikoan landutako eduki teoriko garrantzitsuenak txosten batean jasoko ditu. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dion idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute. | Testu-liburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| **E24 Berariazko azken ebaluazio-proba. Idatzizko proba bat ebaztea.** | | 1 h. | | X | Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenen galdeketa bat erantzungo dute banaka. | Unitate didaktikoan bereganatutako ezagupenak erakusteko balioko du. | Azterketa. |

**OHARRAK**

- Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko.
- Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu.

| 2. unitate didaktikoa: AHOZKO ADIERAZPENA GARATZEKO HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEAK PLANIFIKATZEA | Iraupena: 38 ordu |
|---|---|

*Haurrei zuzendutako adierazpen- eta komunikazio-baliabideak hautatzen ditu, eta horien ezaugarriak hartzaileen eboluzio-unearekin lotzen ditu.*
*IE 3: Ahozko adierazpena garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduera abiarazten ditu, eta horiek aurreikusitako helburuekin lotzen ditu.*
*IE 5: Adierazpenaren eta komunikazioaren arloko esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen ditu, eta garrantzizko aldagaiak eta ebaluazio-tresnak argudiatzen ditu.*

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Lan egingo dueneko haurren ama-hizkuntza identifikatzea.
2. Haurren hizkuntza-garapena behatzea.
3. Espazioak antolatzeko, jarduera eta taldearen ezaugarriak kontuan hartzea.
4. Ahozko adierazpena garatzeko jarduerak egitea, denboraren plangintzara egokituta.
5. Jardueraren berezko baliabide materialak prestatzea.
6. Haurren ahozko adierazpena bereganatu eta garatzea bultzatzen duten materialak prestatzea.
7. Jardueraren garapenean bakoitzaren erritmoak eta beharrak errespetatzea.
8. Ahozko adierazpenaren asaldura nagusiak identifikatzea.
9. Adeitasun eta konfiantzazko giroa bultzatzen duten esku hartzeko estrategiak hautatzea.
10. Haur bakoitzaren erritmoak errespetatzearen garrantzia baloratzea.
11. Jarduerak plangintzapean egitearen koherentzia baloratzea.
12. Asaldura ohikoenak eta esku hartzeko hautabideak identifikatzea.
13. Ebaluazio-adierazleak hautatzea.
14. Haur bakoitzaren ezaugarrietarako eta adinerako ebaluazio-tresna egokiak hautatzea.
15. Haurren adierazpenaren eta komunikazioaren jarraipenerako behaketa-tresnak prestatzea.
16. Prozedura zuzenari jarraituz ebaluazio-tresnak aplikatzea.
17. Ebaluazioaren ondoriozko datuak ezarritako euskarrian erregistratzea.
18. Prozesuari buruzko informazio teknikoa interpretatzea.
19. Beste profesional batzuekin zein egoeratan lankidetzan aritu beharra dagoen identifikatzea.
20. Familiei eta beste profesional batzuei zuzendutako dokumentazioa prestatzea.
21. Esku-hartze desegoki baten arrazoi posibleak identifikatzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| PROZEDURAZKOAK | • Haurren hizkuntza-garapena behatzea. | | | X | | |
| | • Lan egingo dueneko haurren ama-hizkuntza identifikatzea. | | | X | | |
| | • Espazioak antolatzeko, jarduera eta taldearen ezaugarriak kontuan hartzea. | | | X | | |
| | • Ahozko adierazpena garatzen laguntzen duten materialak prestatzea. | | | X | | |
| | • Ahozko adierazpenaren asaldurak identifikatzea eta horietan esku hartzea. | | | X | | |
| | • Ikasgelan adierazpena eta komunikazioa garatzeko baliabideak antolatzea. | | X | | | |
| | • Haurrentzako ahozko adierazpeneko baliabideak identifikatzea. | | X | | | |
| | • Haurren eboluzioaren unea hautatutako baliabidearen ezaugarriekin lotzea. | | X | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Elebitasun eta diglosiako egoeretan esku hartzeko programak. | | | X | | |
| | • Haurren ahozko adierazpena garatzeko estrategia nagusiak. | | | X | | |
| | • Espazioak, baliabideak materialak eta jarduerak. | | | X | | |
| | • Ahozko adierazpena garatzearekin lotutako asaldura ohikoenak. | | | X | | |
| | • Ahozko adierazpena behatzea. | | | | | X |
| | • Haurren adierazpena eta komunikazioa behatzeko tresnak: diseinatu eta hautatzea. | | X | | | |
| | • Ahozko adierazpena garatzeko baliabide didaktiko eta aplikazio bereizgarriak: | | X | | | |
| | • Haur-literatura hautatu eta erabiltzeko irizpideak. | | X | | | |
| JARRERAZKOAK | • Haurren ama-hizkuntza errespetatzea. | | | X | | |
| | • Jardueraren garapenean bakoitzaren erritmoa eta beharrak errespetatzea. | | | X | | |
| | • Adeitasun eta konfiantzazko giroa bultzatzen duten esku hartzeko estrategiak hautatzea. | | | X | | |
| | • Hizkuntza-aniztasuna errespetatzea. | | | X | | |
| | • Jarduerak plangintzapean egitean koherentzia baloratzea. | | | X | | |
| | • Haurren adierazpideak baloratzea. | | X | | | |
| | • Baliabideak haurren eboluzio-unearen ezaugarrietara egokitzearen garrantzia baloratzea. | | X | | | |
| | • Baliabideen arauak errespetatzea. | | X | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ZER** egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | **Helburu inplikat.** | **D.** | **NORK** | | **NOLA** egingo den | **ZERTARAKO** egingo den | **ZEREKIN** egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| **J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.**<br>**E0 Hasierako ebaluazioa.** | | 1 h. | X | | Irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle guztiei; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko.<br>Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Aldez aurretik egindako inkesta.<br>Arbela.<br>Klarionak. |
| **J1 Ahozko adierazpenaren garapenaren eboluzioari buruzko azalpena.** | 1, 2, 10 | 2 h. | X | | Irakasleak talde osoari klase magistrala emango dio, haurren ahozko adierazpenaren eboluzioari buruz. | Ikasleek ahozko adierazpenaren eboluzioarekin lotutako alderdi desberdinak ezagutuko dituzte. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| **J 2-E1 Talde-lana: ahozko hizkuntzaren eboluzioa.** | 1, 2, 10 | 1,5 h. | | X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta ahozko hizkuntzaren eboluzioari buruzko lan bat egin beharko dute. Halaber, ahozko hizkuntza haurren garapen integrala lortzeko oso lagungarria dela garbi utziko zaie. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek.<br>Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dion idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute. | Testu-liburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| **J3-E2 Ikasleen praktika autonomoa: Ahozko hizkuntzaren eboluzioari buruzko laburpen-taula bat osatzea.** | 1, 2, 10 | 1 h. | | X | Ikasle bakoitzak laburpen-taula bat osatuko du eta 0 eta 6 urte bitarteko haur baten hizkuntza-mailen eta ahozko garapenaren arteko erlazioak adieraziko ditu. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek.<br>Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak antolatzeko bitartekoak eskuratuko dituzte. | Testu-liburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| **J4-E3 Talde-lana: Hizkuntza-ekoizpenak aztertzea.** | 1, 2, 10 | 1 h. | | X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta 2 eta 4 urte arteko haur baten hizkuntza- | Hizkuntza-ekoizpenen inguruan hausnartzeko eta horien ezaugarriak | Ahots-grabagailua.<br>Kasete-erreproduzigailua. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | ekoizpenak zinta batean grabatzeko eskatuko zaie, ondoren aztertzeko. | aztertzeko balio du. | Kaseteak.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| **J5 Elebitasuna eta diglosia gertatzen den egoeretan esku hartzeko programei buruzko azalpena.** | 7, 9 | 1,5 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du, elebitasuna eta diglosia gertatzen den egoeretan esku hartzeko programei buruz. | Ikasleek elebitasuna eta diglosia gertatzen den egoeretan esku hartzeko programa ezagutzea lortu nahi da. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| **J6 Ahozko adierazpena garatzearekin lotutako asaldura ohikoenei buruzko azalpena.** | 8, 12 | 1,5 h. | X | | Irakasleak talde osoari klase magistrala emango dio, ahozko adierazpenaren garapenarekin lotutako asaldura garrantzitsuenei buruz. | Ikasleek ahozko adierazpenaren eboluzioarekin lotutako asaldura garrantzitsuenak ezagutuko dituzte. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| **J7-E4 Ikasleen praktika autonomoa: Ahozko hizkuntzaren asalduren laburpen-taula bat osatzea.** | 8, 2 | 0,5 h. | | X | Ikasle bakoitzak laburpen-taula bat osatuko du ahozko hizkuntzaren asaldura ohikoenekin eta horien sintoma nagusiekin. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak antolatzeko bitartekoak eskuratuko dituzte. | Testu-liburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| **J8-E5 Suposizio praktikoak banaka ebaztea.** | 8, 12 | 1 h. | | X | Irakasleak ahozko hizkuntzarekin erlazionatutako hainbat egoera edo arazo azalduko dizkie ikasleei, eta honako alderdi hauek baloratuko dira: baliabideak, hezitzailearen rola, garapena, eta abar. | Haurren loarekin erlazionatutako arazo nagusiak identifikatuko ditu ikasleak. Arazo horien aurrean esku hartzeko protokoloei buruzko kontzeptuen jarrerazko eta prozedurazko aplikazioa egingo dute. | Irakasleak aldez aurretik prestatutako suposizio praktikoak. |
